

Pako Sudupe

IDAZLEA

## Kontraera

**K**

ontraera harrapatu nau idazteko gonbitak, gogorik gabe, nire gogo falta baino ez balitz! Nik uste halaxe sentitzen garela, okerreko hanka aurrean dugula eta pausoa ezin zuzendurik, gure Euskal Herri anormal hau normaltasun bidean ikusi nahi genukeen independentista euskaltzaleok.

Ander Iturriotzek dioen bezala, era adierazgarrian, egun ETA estatuaren edo bi estatuen joko zikin antidemokratiko guztia garbitzen duen makina bat da, tresna ezin hobea demokrazia hitz iruzurtiaz beren buruak jazteko, eta beraz haiei interesatzen zaie gutxienik erakunde gaizki armatua desagertzea.

Hego Euskal Herriko erakunde politikoetara begira jartzen bagara, hautetsi abertzaleak begira ikusten ditugu, alderdi espainolistek zer egingo, baietz PPK gobernatu EAEn ere Nafarroan bezalatsu, ehun eguneko konfiantza behintzat eman egin beharko zaio gobernu berriari; gainera orain lehentasuna krisi globalari ematen zaion tokiko erantzunak du... Alderdien Legea indargabetzeko estrategia, presoan afera, politika espainolista era bateratuan deslegitimatzeko mugimenduak, ez du ematen horiek lehentasun dituztenik, eta horiek aintzat hartu gabe, abertzaleak espainolismoaren ezialdiaren ikusle zozo bihurtzeko peril handitan.



DANI BLANCO

Friboloegia izango naiz, baina krisiarena nago etorri zaigun bezala joango zaigula. Baliabideez ahulenei kalte handia eginik, baina oharkabean etorri zaigun bezala, joan ere antzera egingo zaigu, hemengo erakundeen eragina erabakigarri gertatu barik, horixe nonbait.

Eta beti lehentasuna bestek du: krisiak, Europak, ez gure arazo nazionalak, ez gure hizkuntzak ere. Beti kontraera. EAĒko gobernu berriko lau kontseilarik euskaraz egin dute zin beren kargua, eta batek euskaraz eta erdaraz. Horrek zer esan nahi du bost kontseilari horiek oso aintzat hartzen dutela euskara eta beren

ardurapeko sailetan euskarari lehentasuna emango diotela edo gutxienez bi hizkuntzak berdin tratatuko dituztela ala itxura egin nahi dutela, herritarrek euskararen aurkakotzat jo ez ditzaten? Aurrekoek ere euskararen kontuan itxura eta hipokresiatik gehiago zuten, eta hauek gutxiago izango dira itxurakerian eta hipokresian?

Gu Lizarra-Garazi garaian sentitu ginen erara, eta hara itzuli nahi, jakina. Baina orain krisia gaingiditza da garrantzizkoena, eta Europako hauteskundeak gainean ditugu. Espainolismoa ez tigan, alderdi abertzaleak noraezean, eta herritarrok nekeak, axolagabeziak eta aisenahiak jota, gure Euskal Herri gutxi euskaldun eta gutxi burujabeen. Kontraera! ■

« Gu Lizarra-Garazi garaian sentitu ginen erara, eta hara itzuli nahi, jakina. Baina orain krisia gaingiditza da garrantzizkoena »

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Etxeberria zaldibiarra, Gipuzkoako goierritarra. Berrogei bat urte badira eza-gutu nuela, banku bateko langile. Abegitsua, hitzekoa. Hogei bat urtez ez genuen izan elkarren berri, Agiñako Pellok zubiarena egin zigun arte. Antonio, Milaren eta Maloresen aita, Ekiren eta Itsasoren aitona. Gure laguna. Egañak begirune handiz Lazkao Txikiri kantatutako hura egokia iruditzen zait Antoniorentzat: txikian handi. Behetik gorako bidean onduak, amuarrainak kutizi erreka gora egin zuen haien bila. Ahalik eta azkarren, ahalik eta lasterren labaintzartu arte bizitzen ohituak, eguraldiaren

## Antonio

petralari paso eta erreka emaritsura egin zuen, nahi gabean goitik beherantz amilduz bere azkena eman arte, hain maitea zuen inguruan. Bertan, nekez

aurkituko dugu norbait Antoniorengandik zerbitzurik jaso gabekoa. Horretarako begi apartekoa, ez zuen inoren eskakizunaren beharrik besteengan beharrak ikusteko, eta joko aurreikusten duen jokalariaren antzera aurrea hartuko zuen laguntza bideratuz eta gauzatuz trukean ordainik espero gabe. Ez da makala utzi digun mezua, gaitza, norbaitek bidean gauza bilakatu nahi bailuke. Begi argitsuaz gain, Txindokiren adinako jendetasuna da behar. Ainitz maite duenak, ainitz ..... du. ■